



AKTA

Aiarako Kuadrillaren **TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK** egindako ezohiko bilkurarena,

2019ko azaroaren 11koa

Arespalditzako Aiarako Kuadrillaren egoitzan, **9:13ak direnean**, jarraian zerrendatzen diren batzordekideak elkartu dira **ezohiko bilkura egiteko, lehen deialdian**. Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzordeko presidente **Encina Castresana Astarloa andrea** izan da bilkuraren burua, eta M^a Virginia Carcelén García andrea, behean izenpetzen duena, aritu da idazkari-lanetan.

Jarraian aipatutako jaun/andre batzordekideak bertaratu dira:

Encina CASTRESANA ASTARLOA and. (EAJ-PNV)
Gentza ALAMILLO UDAETA jn. (EAJ-PNV)
Ander AÑIBARRO MAESTRE jn. (EAJ-PNV)
Josune IRABIEN MARIGORTA and. (EAJ-PNV)
Jon ESCUZA DEL CAMPO jn. (EAJ-PNV)
Joseba VIVANCO RETES jn. (EH BILDU)

Irabien andrea sartu da 9:16an eta eguneko gai-zerrendako 2. puntua hasten ari zen. Bilkuratik irten da 10:46ak direnean, eguneko gai-zerrendaren 10. puntuan. Añibarro jauna 11:29an irten da, eguneko gai-zerrendaren azken puntua lantzen ari zenean.

Ez dira bilkurara bertaratu Talde Politiko Batzarkideetako bozeramaileak, gonbidatuak izan arren.

Gainera, Kuadrillako teknikari gisa honako hauek bertaratu dira, bakoitzaren arloetako puntuak azaltzeko: Leire Dueñas, Gianfranco Ghiro eta Yolanda Urrejola and.

Kuadrillako presidente andreak, **lehenengo deialdian, 9:13an**, osoko bilkura irekita dagoela adierazi du, idazkariak bilera abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Kuadrillak arautzen dituen Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 46.2.c) artikuluari lotuta. Halaber, agindu du ezarritako gai-zerrendari jarraituko diotela.



1.- BILKUREN EGUNA ETA ORDUA ZEHAZTEA.

TGBren osaera xedatzen duen urriaren 31ko 56/2019 Presidentetzaren Dekretuarekin bat, organo honek bere bilkurak hileko 2. eta 4. astearteetan, 13:00etan, egingo ditu.

Jakinaren gainean gelditu ondoren, ikusi da egun eta ordu horietan alkatearen eta gainerako organoen agendak bateratzeko zailtasun handiak daudela. Hori dela eta, guztiek adostu dute ohiko bilkurak **hilabeteko 1. eta 3. ostegunetan, 13:00etan, egitea.**

2.- 2019ko ESKUALDEKO LAGUNTZAK JUSTIFIKATU ETA LIKIDATZEA.

2019ko apirilaren 16an egindako bilkuran Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzordeak hartutako erabakiaren bidez 2019 Eskualdeko Laguntza hauek ematea erabaki du:

"LEHENENGOA.- Aurkeztutako eskaerak ikusita, honako laguntza hauek emango dira:

AIARA TXIRRINDULARI ELKARTEA, "AIARAKO BIRA" (bizikleta martxa, ambulantiaren kostua)	1.500 €
ARTZINIEGA KO TXIRRINDULARI ELKARTEA "KARPY" (bizikleta bira)	300 €
STO. TOMAS KULTUR ELKARTEA (jarduera musikala)	378 €
AIARAKO BOLATOKI TALDEA (Euskadiko bola-txapelketa)	1.000 €
PEREGAÑA ELKARTEA (kirol-lasterketa)	1.400 €
(txapelketako sariak)	800 €
GANEKOGORTA MK MENDI TALDEA (Okondo Ibarra ibilaldia)	
1.040 €	
ESKUTXI AHOTSAK EMAKUMEEN TALDEA	600 €
GUZTIRA	7.018 €

Horretan oinarrituta, onuradunei dirulaguntzen % 80 ordaindu zitzaient, 2019ko eskualdeko dirulaguntzen oinarri arautzaileek ezartzen duten moduan.

Onuradunek diruz lagundutako jardueri buruzko diru-sarrerak eta gastuak justifikatzeko zinpeko aitortpena aurkeztu ondoren, laguntzen onuradun bakoitzaren egoera zehatza aztertu da.

Eztabaida amaitutakoan, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Onestea 2019ko eskualdeko dirulaguntzen likidazioa. Hori honako hau da:

ONURADUNA	EMANDAKO	1.	LIKIDAZIOA	LIKIDAZIO-
-----------	----------	----	------------	------------



	DIRULAGUNTZA	ORDAINKETA:	GASTUA GUZTIRA	PROPOSAMENA
SANTO TOMAS DE MENDIETA ELKARTEA	378 € Jarduera musikala	302,4 €	311,25 €	2. ordainketa 8,85 € izango da.
AIARAKO BOLATOKI TALDEA	1.000 € Euskadiko bola-txapelketa	800 €	Dirulaguntzez gain, 210 euroko defizita dute	2. ordainketa 200 € izango da.
PEREGAÑA ELKARTEA	1.400 € Lasterketa 800 € Trofeoak	1.220 € 640 €	Ez dago gehiegiz finantzatuta: Lasterketa 1.419,83 € Trofeoak 700,83 €	2. ordainketa: Lasterketa 180 € Trofeoak 160 €
ARTZINIEGA TXIRRINDULAR I ELKARTEA	300 € KARPY lasterketa	240 €	Ez dago gehiegiz finantzatuta	2. ordainketa 60 € izango da.
ESKUTXI AHOTSAK EMAKUMEEN TALDEA	600 €	480 €	Dirulaguntzari uko egin diote: uko egin eta banku-transferentziari buruzko idazkia jakinarazita	Uko egitea onartu da.
GANEKOGORTA MK	1.040 € Okondo Ibarra ibilaldia	832 €	Ez du gehiegizko finantzaketarik. Gastu guztia: 1.568,46 €	2. ordainketa 208 € izango da.

Aiala Txirrindulari Elkartea dagoeneko likidatuta dago diruz lagundutako jardueraren gastu errealagatik. Hori 1.417,5 € izan zen, eskatu zen zenbatekoarekiko.

3.- KUADRILLAREN HIRIGINTZA ARLOKO AHOLKULARITZA ZERBITZUAREN ERREKLAMAZIOEN ESPEDIENTEAREN EGOERA.

Arloko teknikariak jakinarazi ditu zerbitzu hori hiru udal txikitan ematen duten teknikari guztien demandak. Bertan, lan-harremana onesteko eskatu dute: Martínez Aguillo eta Pinedo Ortega arkitekto andreak/jaunak eta París Palacios eta Manjón Borregón aparejadore jaunek.

Ildo horri eutsiz, epai irmo bakarra dago, Martínez Aguillo arkitekto andreak aurkeztutako demandarekiko. Azken horrek Artziniega eta Okondoko Udaletan ematen du zerbitzua. Epaiak honako hau kontuan hartu du:

- UDALHITzen 24 ordainsari-maila (Kuadrillako teknikarien maila altuenera baliokidetua).
- % 53ko lanaldia eta urtean 29.329 euroko soldata.



Artziniega eta Okondoko aparejadorearen (París jn.) demandarekiko epaiketa (ahozko bista) urriaren 21ean egin zen eta epaiaren jakinarazpenaren zain gaude; dena den, eskaera kontuan hartuko da eta hori izatean kontratazioa erregularizatu beharko da bertan ezarritako maila, lanaldiaren ehuneko eta ordainsariaren arabera.

Pinedo Ortega eta Manjón Borregón jaunei dagokienez, ahozko epaiketa datorren abenduaren 3rako ezarri da; horregatik, beharrezkoa da pertsonatze-akordioa hartzea.

Eztabaida amaitutakoan, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- David Pinedo Ortega eta Iban Manjón Borregón jaunek aurkeztutako erreklamazio eta demanden inguruan informazioa jaso ondoren, aipatutako kausetan pertsonatze-akordioa hartzea.

BIGARRENA.- Abogados EKAIN bulegoko abokatuen laguntza kontratatzea bidezkoa dela berrestea, beste Kuadrilla batzuetan antzeko prozesuak landu dituztelako eta gure Kuadrillan aurretik egondako antzeko prozesuetan lan egin dutelako.

HIRUGARRENA.- Behar diren gestioetarako Presidentetza gaitzea, bereziki ordezkaritza nahiz prozesu-ordezkaritza eta abokatuen defentsa kontratatzeari dagokionean. Era berean, Presidentetzari espreski emango zaio ahalmena erakunde hau ordezkatu ahal izateko; horretarako, berretsi egin da María Gomeza Villa notario andreak 2019ko apirilaren 24an baimendu eta egindako auzietarako ahalorde orokorra.

Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrilla osatzen duten udalerrietan hirigintza-aholkularitzaren zerbitzuak ematen dituzten arkitekto eta arkitekto teknikoek orain eta etorkizunean jartzen dituzten erreklamazioen aurrean, Presidentetza ahaldunduko da, aipatutako ahalordean ezarritako profesionalek lagunduta, eskumeneko prozedura boluntario eta auzi-prozedura guztietan pertsonatzeko.

4.- HIRURTEKOAK BETETZEA: URRESTI AZPIRI ANDREA, AGIRRE ZUBELDIA JAUNA.

Jakinarazi da automatikoki bete dela honako langile hauen hirurtekoa:

Miren Urrestik 2019ko urriaren 1ean bete du (1. hirurtekoa).

Alberto Agirrek 2019ko azaroaren 2an bete du (7. hirurtekoa).

Aztertu ondoren, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

5.- FORU-HITZARMENAK:



5.1.- KEXAAKO BISITA GIDATUETARAKO HITZARMENA.

Arloko teknikariak jakinarazi du hitzarmen hori Kultura Foru Sailarekin egin dela urte batzuetan zehar; hala ere, aurten, Kexaako turismo-bulegoa Udalarena denez eta itxita dagoenez, 4.275 euroko dirulaguntza itzuli beharko dugu.

Monumentu-multzo horretan bisitak berreskuratzeko kudeaketa aztertu da.

Eztabaida amaitutakoan, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Onestea Kexaako bisita gidatueterako 2019ko foru dirulaguntzei buruzko hitzarmenaren likidazioa eta dirua itzultzea, ez direlako bisitak antolatu.

5.2.- OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK FINANTZATZEKO HITZARMENA.

Arloko teknikariak jakinarazi du Aiarako Kuadrillak hitzarmen bat duela Gizarte Ongizateko Departamentuarekin (Gizarte Politikak) 2018tik. Edonola ere, 2019an ez da aipatutako hitzarmena berritu; beraz, Kuadrillei eten egin zaigu finantzaketa horren ordainketa. Gure kasuan, lanaldi erdian gizarte-teknikaria eta administrari-laguntzailea finantzatzen dira. Arazoa konpontzeko, Kuadrilla guztiak saileko diputatuarekin hitzorduaren eguna eta ordua zehaztearen zain gaude.

Azterketa amaitu ondoren, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

6.- AIARAKO KUADRILLAKO BALIABIDE ETA ZERBITZUEN GIDA.

Arloko teknikariak jakinarazi du 2018-19 Aiarako Kuadrillaren Baliabide eta Zerbitzuen Gida bi urterako egin zela, azkenaldian egin diren giden moduan. Hori oinarritzat hartuta, egokia litzateke gida berri bat egiteko aukera aztertzea eta, bidezkoa bada, horren iraupena zehaztea eta kontratazio espedientea hastea.

Eztabaida amaitutakoan, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Plegu arautzaileak honako ezaugarri hauetara egokitzea:

- Legealdi osorako, hau da, lau urterako izan dadin.
- Nahiz eta etxeko postontzietan banatu, aldatetak modu digitalean bakarrik Kuadrillako webgunean egin daitezen.



7.- HHSen BILKETA ZERBITZUA EMATEA:

7.1.- ZERBITZUAREN EGOERAREN ETA AURREKARIEN INFORMAZIOA.

Arloko teknikariak, Dueñas andreak, jakinarazi du 2019ko irailaren 26an, TGBk 2019ko irailaren 17an hartutako erabakiaren berri eman zitzaiola CESPARI, zerbitzua ezartzeko egoerari eta egondako gertakari buruz, arloko teknikariaren txostenaren arabera. Aipatutako jakinarazpenean enpresari adierazitakoarekin bat, enpresak berak egindako fakturretatik eman gabeko zerbitzuen kostua deskontatzea onetsi zen. Era berean, eskatzen zitzaion hainbat justifikazio-agiri egiteko, batetik, kaltea murrizte aldera edo, bestetik, esleitu zenetik zerbitzuak ez emateagatik zerbitzua gutxiago ordaintze aldera.

7.2.- CESPak AURKEZTUTAKO TXOSTENA.

Bilkuraren deialdiarekin batera, **I. ERANSKIN** gisa, txertatu da Aiarako Kuadrillan HHSen bilketa eta garraio zerbitzuaren balorazio-txostena; hori CESPak aurkeztu zuen 2019ko azaroaren 4an, Kuadrillak emandako jakinarazpenari erantzuteko.

Teknikariak jakinarazitakoaren arabera, Kuadrillak jakinarazpena eman zuenetik zerbitzua egiaz asko hobetu da. Hala ere, oraindik asko falta da esleitutako zerbitzua osorik emateko, eta, beraz, enpresak aurkezten dituen gauza asko ez dira zerbitzuaren errealitatera egokitzen. Are gehiago, bere esanetan, pleguetan ezarritako alderdi batzuek zerbitzuaren kudeaketa desorekatu dute eta zerbitzua ez emateko arrazoitzat jo dituzte. Dena den, itxuraz, horiek enpresak aurkeztutako eskaintzan aurreikuspenik ezari erantzuten diote.

Aurrekoari eutsiz, honako gai hauek azpimarratu dituzte:

- CESPak kexu da atzeko bilketak sortu dituen arazo eta desfaseengatik. Bere esanetan zerbitzua ez zegoen lizitazioan, baina pleguetan, zehazki PPTan, ageri dela ziurtatu da, beraz, CESPak azaldutako arrazoiak zerbitzua gaizki edo akatsez kudeatzeagatik edo, are gehiago, eskaintza aurkeztean zerbitzuaren alderdi hori ez aurreikusteagatik izan daiteke.
- Herritarrei laguntzeko telefono-linea bat jartzea: ez dago instalatuta eta duela astebete soilik aurkeztu zitzaion Kuadrillari hori instalatzeko proiektua.
- Tamaina handiko tresnen bilketa: gai horretan ere tamaina handiko elementuen bilketan lanez gainezka daudela adierazi dute, baina zerbitzua arautzen duten pleguen 18. orrian xedatutakoari jarraiki, pleguetan adierazitako datuek adierazten dute zerbitzua normaltasunean dagoela. Ikusi daiteke tamaina handiko elementuen kopurua aurreko urteetan egondakoaren ia berdina dela. Hori dela eta, ezin da zerbitzuaren disfuntziorako aitzakiatzat jo.
- Ontzien bilketa: zerbitzuaren zati hau ez da eman Kuadrillak ontzietarako edukiontzi guztiak jarri arte. Nolanahi ere, CESPak zerbitzua kobratu du, zerbitzua ez eman arren. Irizpide bera jarraitu behar da CESPak eman ez dituen zerbitzuekiko.



-
- Errefuserako edukiontziak berandu hasi dira ordezkatzeko eta herritarrak asko kexatu dira edukiontzi horien egoeraz, baina oraindik jartzen ari dira.
 - Eskuorri bat aurkeztu du sentsibilizazio kanpainarako, baina hobetu eta aldatu behar da.
 - Falta da edukiontziei txipak eta ibilgailuko pisaketa jartzea.
 - Hondakinak karakterizatzeko plana aurkeztuko dute.
 - Lehen txostenak jasotzen hasi dira, baina oraindik ez da bakar bat ere bildu.
 - Oro har, ikus daiteke zerbitzuaren inguruan CESPak egindako aurreikuspenak eta kudeaketa egokia ez datozela bat, giza baliabideek eta bitarteko materialek zerbitzua behar bezala emateko egiazko beharrei erantzuten ez dietelako.
 - Arlo guztietan zerbitzua oso modu txarrean eman da.
 - Edukiontzien garbiketa zerbitzu urria edo anekdotikoa; azken hori enpresak ere aitortzen du.
 - Puntu txikien bilketa urria edo anekdotikoa.
 - Okondoko landa-puntuko bilketa ezin okerragoa.
 - Laudioko Garbigunearen kudeaketa ezin okerragoa.
 - Kamioiak eta gainerako makineria eskura jartzean berandutzea.

Zerbitzua ematean azaldutako gertakariez gain, teknikariak jakinarazi du ez direla honako zerbitzu hauek eman:

- Amurrioko arrandegien bilketa.
- Paper eta kartoiaren atez ateko bilketa.

7.3.- TEKNIKARIEK CESPak AURKEZTUTAKO TXOSTENA AZTERTZEA.

Emandako dokumentazioa aztertu ondoren, arloko teknikariak **II. ERANSKINA** txostena egin du. Bertan CESParen informazioa aztertu du eta, modu berean, egoera berriarekin bat proposamena egiteko zerbitzuaren egungo egoera balioetsi du. Ildo horri eutsiz, proposatzen du 2019ko irailaren 17an Tokiko Gobernu Batzordeak egindako bilkuran hartutako erabakia berrestea, hau da, enpresak eman ez dituen zerbitzuak ez ordaintzea eta dagozkien fakturretatik deskontatzea.

Hala eta guztiz ere, Dueñas teknikari andreak jakinarazi du CESParekin hitz egin behar duela, azaroaren 4an aurkeztutako txostenean dauden hainbat zifra azaltzeko, ez direlako ulertzen.

7.4.- EBAZPEN-PROPOSAMENA.

Eztabaida laburraren ondoren, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Teknikariek txosten tekniko-ekonomiko bat egitea zerbitzuak izan dituen urritasunekin eta eman ez diren zatiekin, baita ezartzeko orduan izan den



atzerapenarekin ere; ez-betetzeen ondorioak eta zehapenak zehazteko, txosten hori kontratatutako txosten juridikoaren bitartez osatzea.

BIGARRENA.- Berrestea 2019ko irailaren 17ko Tokiko Gobernu Batzordearen bilkuran hartutako erabakia eta CESPAs enpresak aurkeztutako fakturetatik eman ez diren zerbitzuen kostua deskontatzea, horren inguruko txosten teknikoetan oinarrituta.

HIRUGARRENA.- Txosten horiek egiten direnean, zerbitzuaren enpresa esleipendunari jakinaraztea.

8.- HONDAKINEN BILKETA-ZERBITZUARI BURUZKO KOSTUAK BANATZEKO IRIZPIDEAK AZTERTZEA.

Ingurumen teknikariak jakinarazi du kostuak banatzeko proposamen berri bat egin dela, irizpide berriekin; izan ere, etxeko hondakinak eta asimilagarriak bildu eta garraiatzeko zerbitzuan aldaketak egon dira eta horiek 2019 ekitaldi honetako zerbitzua likidatzean aplikatu behar dira.

Azaldu du orain arte zerbitzu hori likidatzeko, pisuak eta biztanleria kontuan hartzen zirela, baina gaur egun zerbitzua aldatu da eta zatiren bat bestelako moduan ematen da. Horrez gain, udalerrri batzuetan lehen ematen ez ziren zerbitzuak daude. Hori guztia kontuan hartuta, zerbitzuen kostuak banatzeko irizpide berriak erabaki behar dira.

Proposamena aurretiaz aztertu da eta, xede horrez, Laudio eta Amurrioko Udaletako teknikariekin bilerak egin dira. Helburua irizpide aplikagarriak zehaztea izan da, gero, balio ekonomikoa eman eta 4. hiruhilekoko aurrelikidazioa nahiz 2019. urteko zerbitzuen azken likidazioa definitzeko.

Dokumentua aztertzearen ondorioz sortutako eztabaida luzearen ondoren, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Bilerak tekniko-politikoak egitea alkate eta udaletako teknikari nahiz Kuadrillako presidente eta teknikariekin, hondakinaren kudeaketa-zerbitzuaren kostuak banatze aldera, proposatutako irizpide berriak aztertzeko.

9.- ERREFUSA BILTZEKO EDUKIONTZI BERRIA JARTZEA. IBILGAILU BERRIAK IRISTEA.

Teknikariak jakinarazi du zein egoeratan dagoen errefuserako edukiontzien instalazioa; horiek aurrekoak ordeztuko dituzte. Dagoeneko bi ibilgailu berri iritsi dira eta martxan daude. Horri esker, zerbitzua ezarri da.

Gaia aztertu ondoren, jakinaren gainean geratu dira guztiak.



10.- GARBIGUNEA:

10.1.- GARBIGUNEAREN ATEA KONPONTZEKO KONTRATUA.

Arloko teknikariak jakinarazi du garbigunearen atea konponduko dela, orain matxuratuta dagoelako, eta, ondorioz, zerbitzua emateko ordutegiaz kanpo pertsonak sartzen direlako.

3 enpresari eskatu zaie aurrekontua: ATLAS NORTE, HERRERIA ÁNGEL RUIZ eta TALLERES LEZIAGA. Azken enpresa horrek aurrekontua aurkezteko epea luzatzeko eskatu du, hori egin behar duen langilea bajan dagoelako. Jasotako aurrekontuen arabera, obraren kostua gutxi gorabehera 6.000 € izango dela uste da.

"Garbiguneko inbertsioetara" bideratutako 1621-699002 partidaren kargura (3.600,00 € ditu) finantzatuko da, baina beharrezkoa izango da partida horretan kreditu-aldaketa bat egitea.

Azaldutakoa ikusita, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Presidentetzari eskuordetzea, obrak kontrata ditzan eta, xede horrez, eskaintzak aurkezteko epea luzatzea. Kontratua kalitatea eta prezioaren arteko lotura onena duen enpresari emango zaio.

BIGARRENA.- "Garbiguneko inbertsioetara" bideratutako 1621-699002 partidaren kargura (3.600,00 € ditu) finantzatzea eta, horretarako, dagokion egiazko gastuaren arabera partidaren kreditua aldatzea.

10.2.- ARAUTEGIAREN BETETZE-MAILA ETA ALDAKETA-PROPOSAMENA AZTERTZEA.

Teknikariak adierazi du hainbat gertakari egon direla Laudioko garbigunean eta azaldu ditu. Horien ondorioz, komenigarria litzateke sendagaiak hondakin asimilagarritzat jotzeari uztea. Horretarako, beharrezkoa da aldatzea **AIARAKO KUADRILLAREN HONDAKINDEGI ALTERNATIBOAREN - GARBIGUNEA - FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUTEGIA**.

Era berean, arautegiaren betetze-maila eta aldaketak aztertzea proposatu da, zehazki, honako atal hauetan: *8. artikulua.- Garbigunearen erabiltzaileak, 10. artikulua.- Hondakin onargarriak eta 11. Artikulua.- Hondakin EZ onargarriak.*



Ikusi da araudia onesteko eskumena Kuadrillako Batzordeak duela eta guztiak jakinaren gainean geratu dira. Gaia bilkurara eramateko izapideak bete beharko dira eta guztiak jakinaren gainean geratu dira.

11.- "HONDAKINAK PREBENITZEKO EUROPAKO ASTEA" SENTSIBILIZAZIO-KANPAINA:

11.1.- BILKETA ORGANIKORAKO POLTSAK EROSTEA.

Ingurumen teknikariak jakinarazi du materia organikoa gaika biltzeko eta Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea poltsak emateko beharrezkoa dela horiek erostea, bukatu direlako.

Horretarako, aurrekontua eskatu zaie honako enpresa hauei: Id-waste SL, Urban Solution, Seigarbost SL eta Papeles El Carmen. Horiek honako eskaintza hauek aurkeztu dituzte:

Enpresa	Prezioa (BEZa barne)	Ezaugarriak
<i>Papeles El Carmen</i>	3.406,80 €	18 mikra dituzten 10 litroko 50.000 poltsa. Tamaina: 45x46 cm. 30 poltsako biribilkiak. Kutxa erabilerrazak.
	3121,80 €	25 mikra dituzten 40 litroko 15.000 poltsa. Tamaina: 71x67 cm. 10 poltsako biribilkiak.
	GUZTIRA: 6.528,60 €	
<i>Id Waste</i>	2.928,20 €	18 mikra dituzten 10 litroko 50.000 poltsa. Tamaina: 45x43 cm. 20 poltsako biribilkiak. 100 paketeko kaxak.
	2.838,66 €	23 mikra dituzten 40 litroko 15.000 poltsa. Tamaina: 70x70 cm. 20 poltsako biribilkiak. 25 paketeko kaxak.
	GUZTIRA: 5.766,86 €	

Azpimarratzekoa da Seigarbost SL enpresak alde batera utzi duela eskaintza aurkezteko aukera, eskatutako materiala fabrikatzeari utzi diolako. Emandako epean ez da Urban Solution enpresaren eskaintzarik jaso.

Azaldutakoa ikusita, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Txosten teknikoan oinarrituta, **Papeles El Carmen** enpresari esleitzea 50.000 poltsa erostea zati organikoak biltzeko, **6.528,60 euroko zenbatekoagatik (BEZa barne)**, kalitatea eta prezioaren arteko lotura onena duelako.

11.2.- ONTZIAK EROSTEA (IKASTOLAK ETA ORGANIKOA).



Ingurumen teknikariak jakinarazi du beharrezkoa dela ontziak erostea, ikastetxeen patioetan jartzeko eta hondakin organikoa gaika biltzeko (sortzaile handiena zein partikularrena).

Honako enpresa hauei eskatu zaie aurrekontua: Sartori-Ambiente, Id-Waste, Sulo eta Seigarbost SL.

Aurrekontu guztiak jasotzearen zain gaude, baina orain arte jaso ditugunen arabera, uste da kostua 5.500 eurokoa izango dela (BEZa barne).

Erosketak "Ingurumena hobetzeko proiektuak, 1720-226999" partidan izango du kargua (horrek 44.400,00 € ditu).

Azaldutakoa ikusita, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Presidentetzari eskuordetzea hornidura erostearen kontratazioa, oso premiazkoa delako. Hala ere, eskaintzak aurkezteko epea betetzea itzarongo da.

11.3.- SENTSIBILIZAZIO KANPAINA KONTRATATZEA.

Ingurumen teknikariak jakinarazi du sentsibilizazio-kanpainaren barruan hainbat ekintza gauzatzeko dinamizazio-enpresa bat kontratatzea proposatu dela. Izan ere, ikastoletan tailerrak egingo ditu eta hondakin organikoen sortzaile handiekin elkarriketak izango ditu.

Honako enpresa hauei eskatu zaie aurrekontua: Artelatz Ingurumen Zerbitzuak, EKIN Consultores eta Ortzadar SL.

Aurrekontu guztiak jasotzearen zain gaude, baina orain arte jaso ditugunen arabera, uste da kostua 8.000 eurokoa izango dela (BEZa barne).

Kontratazioak "Ingurumena hobetzeko proiektuak, 1720-226999" partidan izango du kargua (horrek 44.400,00 € ditu).

Azaldutakoa ikusita, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Presidentetzari eskuordetzea bilketa organikoaren sentsibilizazio-kanpainaren barruan dinamizazioaren kontratazioa.

12.- 2019-2020 NEGUKO BIDEZAINZTA KANPAINA.

Neguan bideak garbitzeari begira, arloko teknikariak jakinarazi du zein den elurra kentzeko makinaren kontratazio-proposamena. Datorren azaroaren 15ean bilera bat antolatuta dago eta Arabako Foru Aldundiaren neguko bidezaintzaren operatiboa aurkeztuko da.



Adierazitakoan oinarrituta eztabaidatu ondoren, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Aipatutako foru-bideen tartetean bideak garbitzeko zerbitzuaren kontratazioa esleitzea elurra kentzeko makinak jarriko dituzten honako partikular edo enpresa hauei:

Aiara 2 Larrinbe

Jose Ramón Berganza “Txerra”. Aurrealdeko hortza duen traktorea du (ez du gatza botatzeko makinarik).

- A-2522 Ziorragatik probintziaren mugaraino.
- A-3616 Baranbiotik Lezamaraino.
- A-4601 A-3616tik A-624ra.
- A-4603 Onsoñorako sarbidea.
- A 625 sendotzea.
- A 624 sendotzea.

Aiara 3 Opellora

Orkatz Basolanak SL. Aurrealdeko hortza eta gatza botatzeko makina duen traktorea du.

- A-3630 Lantenotik Añeseraino.
- A-3626 Arespalditzatik Kexaaraino.
- A-4618 Menoiorako sarbidea.
- A-4619 Luxorako sarbidea.
- A-4620 Beotegirako sarbidea.
- A-624 A-3626 bidegurutzea Lantenoraino.
- A 624 sendotzea.

Aiara 4 Salmanton

Asier/Jagoba Gotxi. Aurrealdeko hortza eta gatza botatzeko makina duen traktorea du.

- A-3618 Izoriatik Maroñoraino.
- A-3931 A-3618tik probintziaren mugaraino.
- A-4612 Maroñorako sarbidea.
- A-4613 Agiñagarako sarbidea.
- A-4614 Salmantonerako sarbidea.
- A-4615 Madariarako sarbidea.
- A-4610 A-624tik A-3618ra.
- A 624 sendotzea.

Aiara 6 Izoria.

Sergio Gaydou. Aurrealdeko hortza eta gatza botatzeko makina duen kamioia du.

- A- 625.
- A-624 Altube mendatea-Las Txozas.
- A-3638 A-625tik Zumalakarregi etorbideraino.
- A-2522 Bizkaiko probintziarekin muga.
- A 624 sendotzea.

Aiara 7 Zuhatza-Okondo



Iñaki Alava Zurimendi. Aurrealdeko hortza eta gatza botatzeko makina duen traktorea du.

- A-3632 Garate mendatea.
- A-3641 Zuhatzatik Okondoraino.
- A-4616 Malkuartu.

Aiara 9 Arrastaria.

Orkatz Basolanak SL. Aurrealdeko hortza eta gatza botatzeko makina duen traktorea du.

- A-4625 Urduñako mendatea.
- A-4906 Delikarako sarbidea.
- A-4907 Artomañarako sarbidea.
- A-4608 Aloriarako sarbidea.
- A-4605 Tertangarako sarbidea.
- A-4604 Lekamañarako sarbidea.

Aiara 10 Luiaondo

Alvaro Fernández. Aurrealdeko hortza eta gatza botatzeko makina duen traktorea du.

- A-3620 Los Olmos bidegurutzetik Murgaraino.
- A-3622 Markijana bidegurutzetik Arespalditzaraino.
- A-4609 Olabezarrerako sarbidea.
- A-3624 Beheko izkina.
- A 625 eta 624 sendotzea.

Aiara 11 Artziniega-Amurrio

Aritz Vivanco. Aurrealdeko hortza eta gatza botatzeko makina duen traktorea du.

- A-624 Artziniega-Amurrio.
- A-3632 Garate mendatea sendotzea.
- A-3641 Zuhatzatik Okondoraino sendotzea.
- A-4616 Malkuartu sendotzea.

Aiara 12 Artziniega

Rubén Aguirre. Aurrealdeko hortza eta gatza botatzeko makina duen traktorea du.

- A-2602 Artziniegatik Peña Anguloraino.
- A-3636 A-2602tik probintziaren mugaraino.
- A-4624 Soxorako sarbidea.
- A 624 sendotzea.
- A-4625 Erretes Tudelarako sarbidea.
- A-2604 Artziniegatik probintziaren mugaraino.
- A-3634 A-624tik A-2604raino.
- A-624 Lanterotik probintziaren mugaraino.
- A 624 sendotzea.

Aiara 5 Aiara: ekipo honi dagokionez, prestatzen ari da, gaituta egotean zerbitzua osatu ahal izateko.

Orkatz Basolanak SL. Aurrealdeko hortza eta gatza botatzeko makina duen kamioia du.

- Sendotzea errepide guztietan.



BIGARRENA.- Zehaztea honako prezioak izango dituztela emango diren zerbitzuek:

TRAKTOREAK

PREZIOA. Aiarako Kuadrillak esleipendunari zerbitzuak ordainduko dizkio honako kontzeptu eta prezio hauekin bat etorriz:

- **Ordainketa finkoa: 200 € kanpaina bakoitzeko;** zenbateko hori hainbat gastu ordaintzeko da: erabilgarritasuna, telefonoak, parteak, eta abar. Kanpaina bakoitzerako ordainketa finkoa (200 euro) kanpaina bakoitzaren hasieran ordainduko da. Nolanahi ere, zenbatekoa ez da orekatuko, ezta itzuliko ere, eta gastua justifikatu behar izan gabe entregatuko da.
- **1. ordainketa aldakorra:** errepideetan neguko bidezaintzaren berezko lanengatik. Elurra kentzeko ekipoa (traktorea, pala, zabaltzeko makina) gidaria barne: **66,37 €/ordu gehi % 10eko BEZa (ondorioz prezioa osotara 73 € da, BEZa barne).** Faktura bat bidali beharko da kontzeptu honengatik.
- **2. ordainketa aldakorra:** koordinadora aktibatzearen bitartez ekipoa muntatu eta desmuntatzeko izango da, azkenean errepideetan neguko berezko lanak egitera joan ez direnean. Atal hau ordaintzeko, **49,79 € gehi % 10eko BEZa (osotarako prezioa 54,77 € izango da, BEZa barne) zenbatetsi dira.** Bigarren faktura bat bidali beharko da kontzeptu honengatik.

KAMIOIAK

PREZIOA.- Aiarako Kuadrillak esleipendunari zerbitzuak ordainduko dizkio honako kontzeptu eta prezio hauekin bat etorriz:

- **Ordainketa finkoa: kanpaina bakoitzeko 200 €;** zenbateko hori hainbat gastu ordaintzeko da: erabilgarritasuna, telefonoak, parteak, eta abar. Kanpaina bakoitzeko 200 euroko ordainketa finkoa kanpaina bakoitzaren hasieran ordainduko da. Nolanahi ere, zenbatekoa ez da orekatuko, ezta itzuliko ere, eta gastua justifikatu behar izan gabe entregatuko da.
- **Ordainketa aldakorra:** errepideetan neguko bidezaintzaren berezko lanak. errepideetan neguko bidezaintzaren berezko lanengatik. Elurra kentzeko ekipoa (kamioia + gatza botatzeko makina) gidaria eta laguntzailea barne: **130,83 €/ordu gehi % 10eko BEZa (guztira 143,91 € izango dira, BEZ barne).** Faktura bat bidali beharko da kontzeptu honengatik.

13.- KUADRILLAREN EGOERA EKONOMIKOA.

Arloko teknikariak informazio hau eman du:

ALTXORTEGIA

2019/11/07

1.216.543,06 €



ORDAINTZEKE	980.000,00 €
--------------------	---------------------

HHS	830.000,00 €
Urria	150.000,00 €

KOB RATZEKE

UDALAK	
MANKOMUNITATEKOAK	343.652,62 €
BIZKAIKOAK	11.737,28 €

AFA

--	--

BESTE BATZUK

ENVISER/ECOEMBALAJES/erp	14.776,49 €
--------------------------	-------------

KOB RATZEKE, GUZTIRA	370.166,39 €
-----------------------------	---------------------

	2019 HHS	OLIOAK	GUZTIRA
Aiara/Ayala	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Laudio/Llodio	38.167,76 €	0,00 €	38.167,76 €
Amurrio	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Artziniega	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Okondo	0,00 €	0,00 €	0,00 €
	38.167,76 €	0,00 €	38.167,76 €

Orozko	0,00 €		0,00 €
Arakaldo	0,00 €		0,00 €
	0,00 €		0,00 €

38.167,76 €		38.167,76 €
--------------------	--	--------------------

**ZORRA, GASTU OROKORRAK ETA
BESTELAKOAK**

	GASTU OROKORRAK			GO + HIR.
	2017	2019	HIRIGINTZA	
Aiara/Ayala	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Laudio/Llodio	0,00 €	0,00 €	7.416,82 €	7.416,82 €



Amurrio	0,00 €	9.756,59 €	0,00 €	9.756,59 €
Artziniega	20,00 €	0,00 €	0,00 €	20,00 €
Okondo	20,00 €	27.483,56 €	0,00 €	27.503,56 €
	40,00 €	37.240,15 €	7.416,82 €	44.696,97 €

	GO + HIR	EEP	SUSPERTZEA	GUZTIRA
Aiara/Ayala	0,00 €	9.120,69 €	0,00 €	9.120,69 €
Laudio/Llodio	7.416,82 €	142.620,00 €	11.276,02 €	161.312,84 €
Amurrio	9.756,59 €	79.940,00 €	0,00 €	89.696,59 €
Artziniega	20,00 €	13.420,36 €	0,00 €	13.440,36 €
Okondo	27.503,56 €	4.410,82 €	0,00 €	31.914,38 €
	44.696,97 €	249.511,87 €	11.276,02 €	305.484,86 €

Urduña		11.737,28 €	0,00 €	11.737,28 €
--------	--	-------------	--------	--------------------

UDALEN ZORRA GUZTIRA

	ZORRA	
Aiara/Ayala	9.120,69 €	
Laudio/Llodio	199.480,60 €	
Amurrio	89.696,59 €	
Artziniega	13.440,36 €	
Okondo	31.914,38 €	
Urduña	11.737,28 €	
Orozko	0,00 €	343.652,62 €
Arakaldo	0,00 €	
		11.737,28 €
	GUZTIRA	355.389,90 €

DATA

**ALTXORTEGIKO
SALDOA**

19-11-07 **1.216.543,06**

AZAROA	ABENDUA
---------------	----------------

SOLDATAK	26.000,00	52.000,00
GS	15.000,00	15.000,00
ELKARKIDETZA		5.400,00
HIRIGINTZA	12.000,00	12.000,00
JUNDIZ TASA	70.000,00	70.000,00
LEASINGA	6.341,88	6.341,88



HONDAKINAK	100.000,00	115.000,00
SARE SOZIALAK	1.500,00	1.500,00
LAGUNTZA		
TEKNIKOAK	8.750,00	
EEP		210.000,00
BESTELAKOAK	15.000,00	10.000,00
ORDAINKETAK		
GUZTIRA	254.591,88	497.241,88

ALTXORTEGIKO		
SALDOA	227.451,18	-269.790,70

DIRU-SARRERAK
JASOTZEKE

HHS		
EEP		
EGITEKE DAUDEN		
DIRU-SARRERAK		
GUZTIRA	0,00	0,00

ALTXORTEGIA	227.451,18	-269.790,70
--------------------	-------------------	--------------------

Arloko teknikariak, Ghiro jaunak, jakinarazi du zein den gastuen eta diru-sarreraren egoera orokorra eta argitu du oraindik ez dela 4. hiruhilekoko ordainketa egin. Beraz, atxikita dauden ordainketak egiten badira eta udalek dagozkien ekarpenak ez badituzte egiten, Kuadrillak zorrak izango ditu.

Eztabaida amaitutakoan, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

14.- 19-20 EEParen EGOERA

Era berean, jakinarazi du enplegurako 7 programa lizitazioan jarri ostean, SARTU enpresa soilik aurkeztu zela eta zazpi programak urriaren 18ko 53/19 Dekretuaren bidez esleitu zirela. Ildo horri eutsiz, hitzez hitz hala dio:

"IKUSI DA 2019ko irailaren 17ko Tokiko Gobernu Batzordearen erabakia, 15.2 puntuan eskualdeko enplegu planen aurrekontuak onesten dituen.

Aho batez ADOSTU DA honako ERABAKI hau hartzea:

LEHENENGOA.- *Enplegu planetan aurreikusten diren kostuak onestea.*

BIGARRENA.- *Aipatutako enplegu-planak Lanbidek emandako laguntzarekin finantzatzea eta udalerrri bakoitzaren enplegu-planak duen egiazko kostua kontuan hartuta,*



emandako laguntzarekiko aldea udalek ordaintzea. Hala, udalek 271.789,69 euro finantzatzeko dituzte.

HIRUGARRENA.- Kostua Aiara, Artziniega, Okondo eta Urduñako Udalen artean banatzea, Lanbidek emandako laguntza proportzioz banatu ostean, hau da:

AIARA	% 27,92
ARTZINIEGA	% 22,65
OKONDO	% 13,50
URDUÑA	% 35,93

LAUGARRENA.- Gizarteratzeko enpresa bati enplegu-planak esleitu ondoren eskatuko dira ekarpenak."

"**IKUSI DA** 2019ko irailaren 17ko Tokiko Gobernu Batzordearen erabakia, 15.3 puntuan eskualdeko enplegu-planen kontratazio-pleguak onesten dituenak.

Aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Onestea prozedura irekiaren bidezko lizitazioa, 2019-20 Eskualdeko Enplegu Planaren barruan 241 227 997 aurrekontu partidaren kargura hurrengo programa hauek kontratatzen:

	<u>LANGILEEN GEHIENENKO KOSTUA</u>	<u>LIZITAZIOA</u>
Amurrio, 2 taldea, basozaintza: 268 2019/12/S218	64.507,33 €	95.689,54 €
Amurrio, 1 taldea, hiria: 267 2019/11/S218	64.507,33 €	92.269,54 €
Amurrio, herri-laguntzailea, 3 taldea: 285 2019/14/S218	34.232,28 €	52.489,49 €
Aiara, Artziniega, Okondo eta Urduña: 269 2019/13/S218	77.286,66 €	107.677,87 €
Laudio, 1 taldea, zoladura eta irisgarritasuna: 264 2019/8/S218	89.493,01 €	117.672,72 €
Laudio, 2 taldea, azpiegiturak: 265 2019/9/S218	89.493,01 €	117.672,72 €
Laudio, 3 taldea, suebakiak: 266 2019/10/S218	64.507,33 €	94.824,54 €
GUZTIRA	484.026,95 €	678.296,42 €

BIGARRENA.- Onestea 2019-20 Eskualdeko Enplegu Planaren barruan zazpi programa kontratatzen plegu arautzaileak.

HIRUGARRENA.- Onestea kontratazio-mahaiaren osaera 2019-20 Eskualdeko Enplegu Planaren barruan zazpi programa kontratatzen:

Mahaiburua: Kuadrillako presidentea
Idazkaria: Ibon Lazkano Aretxabala
Mahaikidea: Gianfranco Ghio



Mahaikidea: Virginia Carcelén García
Mahaikidea: Yolanda Urrejola Aldecoa”

IKUSI DIRA, enplegu-planak lizitazioan jarri ostean, zazpi kontratazio-mahaien esleipen-proposamenak, 2019ko urriaren 10ean bildutako zazpi mahaien 3. gutun-azala irekitzearen ondoriozko aktaren arabera.

IKUSI DA zazpi proposamenen laburpena, **ARABAKO SARTU GIZARTERATZEKO ELKARTEA** enpresari hurrengo kontratazio-espeditente hauek esleitzea proposatzen duena:

<u>ESPEDIENTEA</u>	<u>DESKRIBAPENA</u>	<u>PUNTUAK</u>	<u>LANGILEEN GEHIENAKO KOSTUA</u>	<u>ESLEIPEN- PROPOSAMENA</u>
268 2019/12/S218	Amurrio, 2 taldea, basozaintza	90,50	64.507,33 €	95.680,00 €
267 2019/11/S218	Amurrio, 1 taldea, hiria	90,38	64.507,33 €	92.260,00 €
285 2019/14/S218	Amurrio, herri-laguntzailea, 3 taldea	77,625	34.232,28 €	49.000,00 €
269 2019/13/S218	Aiara, Artziniega, Okondo eta Urduña Laudio, 1 taldea, zoladura eta irisgarritasuna	89,25	77.286,66 €	107.670,00 €
264 2019/8/S218	Laudio, 2 taldea, azpiegiturak	91,13	89.493,01 €	117.650,00 €
265 2019/9/S218	Laudio, 2 taldea, azpiegiturak	90,88	89.493,01 €	117.650,00 €
266 2019/10/S218	Laudio, 3 taldea, suebakiak	90,63	64.507,33 €	94.820,00 €

IKUSI DIRA Kuadrillaren Batzar berria eratu ondoren, Tokiko Gobernu Batzordea osatzeko epe luzea eta Lanbidek laguntzak emateko ebazpenean xedatutako epeak betetze aldera enplegu-planak kontratatzeke premia.

Honako hau EBATZI DUT:

LEHENENGOA.- Zazpi lizitazioak esleitzea **ARABAKO SARTU GIZARTERATZEKO ELKARTEA** enpresari, ondorengo zenbatekoengatik:

<u>ESPEDIENTEA</u>	<u>DESKRIBAPENA</u>	<u>ESLEIPENA</u>
268 2019/12/S218	Amurrio, 2 taldea, basozaintza	95.680,00 €
267 2019/11/S218	Amurrio, 1 taldea, hiria	92.260,00 €
285 2019/14/S218	Amurrio, herri-laguntzailea, 3 taldea	49.000,00 €
269 2019/13/S218	Aiara, Artziniega, Okondo eta Urduña Laudio, 1 taldea, zoladura eta irisgarritasuna	107.670,00 €
264 2019/8/S218	Laudio, 2 taldea, azpiegiturak	117.650,00 €
265 2019/9/S218	Laudio, 2 taldea, azpiegiturak	117.650,00 €
266 2019/10/S218	Laudio, 3 taldea, suebakiak	94.820,00 €

BIGARRENA.- **ARABAKO SARTU GIZARTERATZEKO ELKARTEA** enpresari jakinaraztea eta eskatzea kontratua sinatzeko beharrezko dokumentazioa, lizitazio bakoitza arautzen duten administrazio-pleguetako 11.5 klausularen arabera. Sektore Publikoko



Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo autonomia erkidego bateko edo EBko estatu bateko erregistro baliokidean inskribatutako enpresa denez, dokumentazioa hamar egun balioduneko epean aurkeztu beharko du errekerimendua jaso denetik zenbatzen hasita:

4. Indarrean dagoen legeriak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuta dituela adierazten duen ziurtagiria.
5. **Karatularen 1. puntuan** adierazten den moduan, behin betiko bermea eratu dela egiaztatzea (lizitazioan jarritako kontratazio bakoitzeko bana).

Aurrekoari eutsiz, dokumentazioa aurkezteko epea igarotakoan, gehienez bost (5) eguneko epean kontratazio bakoitza administrazio-kontratu bihurtzeko deia egitea.

HIRUGARRENA.- Udal partaide bakoitzari eskatzea programak finantzatze aldera ekarpenak egiteko honako taula honi jarraiki:

<u>ESPEDIENTEA</u>	<u>DESKRIBAPENA</u>	<u>ESLEIPENA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>	<u>UDALEN EKARPENA</u>
268 2019/12/S218	Amurrio, 2 taldea, basozaintza	95.680,00 €	-62.500,00 €	33.180,00 €
267 2019/11/S218	Amurrio, 1 taldea, hiria	92.260,00 €	-62.500,00 €	29.760,00 €
285 2019/14/S218	Amurrion, herri-laguntzailea, 3 taldea	49.000,00 €	-32.000,00 €	17.000,00 €
269 2019/13/S218	Aiara, Artziniega, Okondo eta Urduña	107.670,00 €	-75.000,00 €	32.670,00 €
264 2019/8/S218	Laudio, 1 taldea, zoladura eta irisgarritasuna	117.650,00 €	-62.500,00 €	55.150,00 €
265 2019/9/S218	Laudio, 2 taldea, azpiegiturak	117.650,00 €	-62.500,00 €	55.150,00 €
266 2019/10/S218	Laudio, 3 taldea, suebakiak	94.820,00 €	-62.500,00 €	32.320,00 €

Udalaren arabeko laburpena

EEP EKARPENA

LAUDIO		142.620,00 €
AMURRIO		79.940,00 €
ARTZINIEGA	% 22,65	7.401,21 €
AYALA/AIARA	% 27,92	9.120,69 €
OKONDO	% 13,50	4.410,82 €
URDUÑA	% 35,93	11.737,28 €

255.230,00 €

LAUGARRENA.- *Kuadrillako Batzarrak egiten duen hurrengo bilkuran horren berri ematea eta Presidentetzaren Ebazpen eta Dekretuen Liburuan transkribatzea."*

Ekarpenen eskaerak jada izapidetu dira.

Kontratazioei dagokienez, lizitazioan jarritako zazpi programen iragarkiak argitaratu dira, baita Aiara, Artziniega eta Okondoko hiru kontratazioei dagozkienak ere.

Azaroaren 18ko astean taldeak hautatzeko elkarrizketekin hasiko da.



Kontratua sinatzeko Lanbideren baimena behar da (gizarteratzeko enpresa bat kontratatzekeo beharrezko baldintza da hori izatea).

Eztabaida amaitutakoan, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

15.- TURISMOKO LAGUNTZAK

Teknikariak jakinarazi du Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzen arabera, 2019rako Kuadrillak Turismoaren arloan honako aurrekontu hau duela:

	AURREKONTUA	AFak EMANDAKOA	EUSKO JAURLARITZA EMANDAKOA	GAUZATZEKO AURREKONTUA	DIRULAGUNTZA
Turismo-bulegoak	10.000,00 €	5.749,05 €		7.186,31 €	5.749,05 €
Komunikazioa. Webgune turistikoak, sare sozialak eta teknologia berriak	16.250,00 €	8.787,22 €	4.766,63 €	13.553,85 €	13.553,85 €
Laguntza teknikoa	34.868,57 €	13.778,09 €	20.299,91 €	34.078,00 €	34.078,00 €
Basquemountains	12.705,00 €	6.352,50 €	6.163,87 €	12.516,37 €	12.516,37 €
Aiaraldea sustatzeko material orokorra	2.500,00 €	1.596,58 €	1.212,88 €	2.809,46 €	2.809,46 €
Kalitatea. Jardun onak.	6.580,46 €	3.212,44 €	3.015,71 €	6.228,15 €	6.228,15 €
Sareetako bazkidetza	1.000,00 €		485,15 €	970,31 €	485,15 €
Artziniega Erdi Aroko azoka	3.690,50 €	1.977,48 €		2.471,85 €	1.977,48 €
Bisita antzeztuak	15.180,00 €	7.410,54 €	7.364,62 €	14.775,16 €	14.775,16 €
Ibilbidea sustatzeko jardunaldiak	6.897,00 €	3.448,50 €	3.346,10 €	6.794,60 €	6.794,60 €
Bideoa	9.801,00 €	4.784,63 €	4.754,98 €	9.539,61 €	9.539,61 €
Bisita teknikoak. Azokak	10.000,00 €	5.721,41 €	4.851,53 €	10.572,94 €	10.572,94 €
Irratiko iragarki laburrak	4.000,00 €		1.940,61 €j	3.881,22 €	1.940,61 €j
Uztartzeak	3.500,00 €		1.698,04 €	3.396,07 €	1.698,04 €
Sustapenak	2.000,00 €		970,31 €	1.940,61 €j	970,31 €
Baliabideak sustatzea	2.500,00 €		1.212,88 €	2.425,76 €	1.212,88 €
Guardiako upeltegia	3.000,00 €		1.455,46 €	2.910,92 €	1.455,46 €
	144.472,53 €	62.818,44 €	63.538,68 €	136.051,20 €	126.357,12 €

Esleitutako laguntzak jakinarazi ondoren, honako lan hauek esleitu dira:

- Bideoa egitea Jose Miguel Llanori esleitu zaio, 8.250,00 euroko zenbatekoan (BEZik gabe).
- Bisita antzeztuen kartelak eta ibilbideen liburuxkak ADI Grafik enpresari esleitu zaizkio, 102,90 euroko zenbatekoan (BEZik gabe) eta 1.523,00 euroko zenbatekoan (BEZik gabe), hurrenez hurren.
- Somontanoko Iparnature SL enpresara bisita teknikoa esleitu zaio, 6.000,00 euroko zenbatekoan (BEZik gabe).



- Bisita antzeztuak Laudio, Amurrio, Okondo eta Aiaran, Gabonetako gaiarekin Gabonetan giroturik.

Sustapen- eta uztartze-jardunaldiak antolatzeko modua aztertzen ari da, baina jasotako aurrekontuak ez dira bereziki interesgarriak.

Erantsitako aurrekontuaren arabera, irriti-kanpaina bat esleitzeko dago. Asmoa 4 iragarki labur grabatzea da: bisita antzeztuak, museoak, upeltegietarako bisitak eta gainerako baliabideak. Ez direnez barne hartzen grabatu nahi ditugun iragarki laburrak (aleko prezioa) eta azaroaren 1etik abenduaren 31ra arteko lana aurrekontuan sartuta dagoenez, eguneko iragarki-kopurua doitu da. Ingurumen arloak beste sustapen-iragarki batzuk egin nahi ditu eta prezio bateratua ixten saiatuko da.

Eztabaida amaitutakoan, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Radio Llodion iragarki-kanpaina bat egitea. Horren kostua 2.100,00 € gehi BEZa izango da eta 432 227 992 partidari izango du kargua.

16.- 2019ko ESKUALDEKO ADINEKOEN TOPAKETA.

Arloko Urrejola teknikari andreak 2019ko eskualdeko adinekoen topaketaren programazioa eta aurrekontua aurkeztu ditu.

Data: 2019ko azaroaren 29a. Ostirala

Tokia: Okondo

Gonbidatutako adinekoen elkarteak: Eskualdeko guztiak.

Topaketarako aurreikusitako programa

	Udalerrietan partaideak jasotzea
10:00	Erakundearen ongietorria Untzako Andra Mariaren elizan eta Okondoko Eskolako bideoa ematea
10:30	Untzako Andra Maria abesbatzaren kontzertua elizan
11:00	Ertzaintzaren Txakur Unitatean txakur-erakusketa
12:00-14.30	Egur-lanketaren erakusketa
12:00-14.30	Inma Roizen hitzaldia
12:00-14:30	Astobiza txakolindegia aurkeztea
12:00-14.30	Luncha
12:00-14.30	Bakarrizketariaren emanaldia
14:30	Bazkaria eta dantzaldia Amurrioko El Refor jatetxean
19:00	Itxiera



Une honetan, 11:29ak direnean, Añibarro jauna irten da.

Aiaraldeko Adinekoen Topaketa:

Orain dela 20 urte hasi zen Aiarako Kuadrillako Adinekoen Topaketa antolatzen. Historikoki, topaketa horretan eskualdeko hainbat elkarteren adinekoek hartu dute parte, baita kartel edo udalerrien aldizkarien (Zuin, Hauxe da, Saraube...) bidez topaketaren berri jakin dutenek ere.

2018ko azaroaren 19an Artziniegan egindako topaketan, 220 pertsonak hartu zuten parte.

Egun horren **helburu nagusia da** eskualdeko adinekoei topagune bat eskaintzea eta gure adinekoei omenaldia egiteko egun ludiko bat antolatzea. Aurten, Kuadrillaren eskualdea sakonki ezagutzeko proposamenarekin jarraituko da, eta, horregatik, txandaka 5 udalerriak bisitatuko dira. Helburua txoko eta zerbitzuak aditzera ematea da, askotan ezezagunak baitira.

Ekitaldia aurten Okondon egingo da.

Beraz, berriz ere Gurutze Gorriaren eta DYArean lankidetzat eta aurrekontua eskatu dira.

Deialdia eta Prentsa

Topaketa honetan parte hartzeko deituak daude Aiara eremuko adinekoen elkarte guztiak, baita Kuadrillako eta Kuadrilla osatzen duten Udaletako teknikari eta politikariak ere. Elkarreei deialdia luzatzeko, telefonoz jarri da harremanetan, elkarrekin azalpen-bilerak egin dira eta udalerrietan kartelak jarri dira.

Era berean, prentsa-ohar bat bidali da topaketaren datu nagusiekin, bai Aiaraldeko hedabideetara, zein erkidego mailan lan egiten duten komunikabideetara (Zuin, Hauxe da, Saraube, Radio Llodio...).

Topaketaren jarduerak eta aurrekontu ekonomikoa:

Jarduera honetarako 11.000 euroko gastua aurrez ikusten da eta horietatik 5.500 euro Udalek emango dituzte; beste 5.500 euroak partaideek eskuratuko dute.

2019an **partaide bakoitzak 25 euro ordaindu behar izan zituen**, Arcos de Quejana jatetxeko menuaren prezioa delako.

Eskatutako kolaborazioak:



Aurten:

- Okondoko eskola; bere ustez hainbeste pertsonaren bisitak adin txikikoen lasaitasuna asalda dezake.
- Okondoko bi hipikak.
- M.A.S.A enpresa.
- Okondoko okindegia.

Hiru enpresa horiek adierazi dute ezin dutela kudeatu horrenbeste pertsona bilduko dituen jardunaldia. Udalerriaren ezaugarriak kontuan hartuta, autobus handiarekin bertan tokiak ezin daitezkeenez bisita (ikusi San Roman eliza edo Astobiza txakolindegia), erabaki da Okondoko pertsonen laguntza eskatzea, topaketan parte hartzen duten pertsonentzat lan interesgarria egiten badute.

- Inma Roiz (idazlea)
- Jesus Castresana (arotza)
- Jose Antonio Ulibarri (egur taillak egiten dituen erretiratua)
- Itzalde abesbatza eta Andoni Armentia abesbatzako zuzendaria eta parrokoa.

Halaber, Aitor Miñambres arkeologoarekin harremanetan jarri da, hitzaldia emateko, Okondoko eremuko Burdin Hesiaren inguruan ikerketa bat egiten ari baita. Azkenik, Ertzaintzaren Txakur Unitateari laguntza eskatu zaio, erakustaldi bat egiteko.

Bazkaria:

Honako jatetxe hauei eskatu zaie aurrekontua, zenbat pertsona joango diren kontuan hartuta eta gerora dantzaldia egiteko tokia beharrezkoa dela kontuan hartuta:

- Arcos de Quejana.
- El Refor
- El Palacio de Anuncibai.

Menu oso eta interesgarriena El Refor jatetxeak aurkeztu du.

Hori dela eta, XX. Adinekoen Topaketarako **aurrekontu zenbatetsia** honako hau da 220 pertsonak parte hartzen badute:

		GASTUAK	DIRU-SARRERAK
Inprenta		115,00 €	
Anbulantzia		650,00 €	
Autobusak	275*5	1.375,00 €	
Itzalde abesbatzaren kontzertua	0,00 €	0,00 €	
Txakolindegiko hitzaldia eta luncha txakolinarekin	6,00 €	1.500 €	
Txakurren erakustaldia	0,00 €	0,00 €	



Egur-lanketaren erakusketa/Bisita aroztegira	0,00 €	0,00 €	
Umorezko ikuskizuna		1.000,00 €	
Bazkaria	25,00 €	5.500 €	5.500 €
Musika		363,00 €	
Magia eta umorezko emanaldia		500,00 €	
Partaideen kuotak	25 € x 250		5.500 €
Udalen ekarpena			5.500 €
		11.003,00 €	11.000

- Topaketan lagunduko duten pertsonen lana eskertzeko, Astobizako txakolindegian luncha egiteko 250 pertsona egongo direla kalkulatu da.

Topaketaren programazioaren behar teknikoak:

Partaideentzako aulki eta mahaiak.
 Egur-lanketaren erakusketarako materiala lekualdatzea.
 Proiektoreak eta pantailak.
 Udalerrietan kartelak jartzea.
 Pilotalekuan Ertzaintzaren muntaketan laguntzea.

Azalpena amaitutakoan eta zalantzak argitu ondoren, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Ekitaldi honetarako aurreikusitako programaren kontratazio-espeditentea ixteko gertatzen ari diren eragozpenak ikusita, 11.000 euro inguru aurkeztutako aurrekontuaren kostua onestea, eta Presidentetzari programatutako kontratazioak egin ditzan eskuordetzea.

Eta beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **11:44ak direnean**. Era berean, presidenteak eta neuk, idazkariak, izenpetu dugu akta hau, eta, neuk idatzitako guztia egiaztatzen dut.

PRESIDENTEA

IDAZKARIA

Sin.: Encina Castresana Astarloa

Sin.: Virginia Carcelén García